

ARRASATE / Ekitaldi ugari liburuaren eguna ospatzeko

Udal liburutegiak, liburuaren egunerako bakarrik ez, apirila osorako ekintzak antolatu ditu: argazki erakusketa; musika eta poesia emanaldiak, haur eta helduentzako ipuin kontaketa... Liburuaren asteko ekitaldiak apirilaren 17an Patxi Iturregik hasiko ditu Haize Kontra izeneko literatura solasaldiarekin. Hurrengo egunean, Maite Frankok Isilka misilka, isiltasunaren zaindaria haurrentzako ipuin kontaketa egingo du. Hilaren 19an komiki solasaldia izango da eta 20an ipuin kontalariak izango dira Kulturaten: Mimi Barthelemy eta Alexis Diaz Piemienta.

Argazki erakusketa

Liburuaren nazioarteko egunean El placer de leer izeneko erakusketa zabalduko dute. Argazki bilduma honek irakurzaletasunaren plazerra erakustea du helburu eta maiatzaren 7a arte egongo da ikusgai. Ekimena ixteko, hilaren 27an Iban Zalduak, Xabier Montoiak eta Ibon Rodriguezek emanaldi bat eskainiko dute eta apirilaren 29an musika eta poesia emanaldi bat egingo dute Alberto Urretxo eta Marion Desjacques musikariek.